

## ALKATEAREN DEKRETUA

08/04/04an, Udalbatzak Donostiako Gobernuaren eta Administrazioaren Erregelamendu Organikoa onartu zuen.

Erregelamendu horrek 3. atalean ezartzen du zuzendaritza-organoen erregulazioa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta 34. artikuluan xedatzen du alkateari dagokiola, aurrekontuko I. kapitulurako ezarritako aurrekontu-mugen barruan, zuzendaritza-organoen kopurua eta izena zehaztea.

Era berean, Erregelamenduaren 38. artikulua xedatzen du udaleko zuzendaritza-organoak direla arloko koordinatzaileak eta zuzendariak, baldin eta, administrazio-antolamendua burututa, alkateak erabakitzen badu administrazio betearazlearen antolaketa eta egitura ezartzean. Era berean, xedatzen du alkateari dagokiola zehaztea zein zuzendaritza-organotan ez den funtzionario izateko betebeharra.

Era berean, 36. artikuluan jasotzen du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 130. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Osoko Bilkurako idazkari nagusia, udaleko kontu-hartzaile nagusia eta Zerga Kudeaketako Organoaren titularra ere zuzendaritza-organo direla, eta kasu horietan legez dagokien araubide espezifikoak aplikatuko dela, hori guztia Toki Gobernu Modernizatzeke Neurriei buruzko 53/2003 Legearen 5. xedapen iragankorra aplikatuz.

Bestalde, lege horren 35. artikuluan zehazten da, koordinatzaile nagusiak egotea, alkatearen antolaketa-dekretu bidez hala erabakitzen bada.

Ondorioz, bidezkoa da ebazpen hau ematea, Zeharkako Zerbitzuen Koordinatzailea izeneko koordinatzaile nagusia dagoela eta zuzendaritza-organoa dela zehaztuz. Era berean, adierazten diren arloko zuzendaritzen izenak zehaztu behar da.

Aurreko guztia ikusita, Alkatetza honek honako hau ematen du:

## DECRETO DEL ALCALDE

Con fecha 04/04/08 el Excmo. Ayuntamiento Pleno aprobó el Reglamento Orgánico del Gobierno y la Administración de San Sebastián.

Dicho Reglamento establece en su sección 3ª la regulación de los órganos directivos, de conformidad con lo previsto en la Ley de Bases de Régimen Local y el Estatuto Básico del Empleado Público, disponiendo en su art. 34 que corresponde al Alcalde, dentro de los límites presupuestarios establecidos para el Capítulo I del Presupuesto, determinar el número y denominación de los órganos directivos.

Asimismo, el art. 38 del Reglamento dispone que son órganos directivos municipales los y las Coordinadores/as de Área y los y las Directores/as que, culminando la organización administrativa, determine el Alcalde en el establecimiento de la organización y estructura de la administración ejecutiva. Dispone asimismo que corresponde al Alcalde la determinación del órgano directivo en cuyo nombramiento se excluye la obligación de reunir la condición de funcionario.

Recoge también, en su Art. 36, en aplicación de lo dispuesto en el Art. 130 de la Ley 7/85 de Bases de Régimen Local, que tienen igualmente la cualidad de órgano directivo el Secretario General del Pleno, el Interventor General municipal y el titular del Órgano de Gestión Tributaria, aplicándose en estos casos el régimen específico que, en su caso, legalmente les corresponda, todo ello en aplicación de la Disposición Transitoria 5ª de la Ley 53/2003, de Medidas de modernización del gobierno local.

Por otra parte, se contempla en su art. 35 la existencia de Coordinadores generales si así se determinara mediante Decreto de Organización del Alcalde.

En consecuencia procede dictar la presente resolución, determinando la existencia de coordinador general con el nombre de Coordinador de Servicios Transversales, así como su carácter de órgano directivo. Asimismo, procede determinar el carácter de las direcciones de área que se indican.

A la vista de cuanto antecede, esta Alcaldía viene en dictar el siguiente



## ANTOLAKETARI BURUZKO DEKRETUA

1. Zeharkako Zerbitzuen Koordinatzailearen existentzia eta zuzendaritza-organo izaera zehaztea.

Zeharkako Zerbitzuen koordinatzailea alkatearen mende egongo da zuzenean, eta hark Marisol Garmendiak eta Yon Goikoetxeak osatutako batzorde baten laguntza izango du.

Zuzendaritza, organo eta erakunde instrumental hauek koordinatzea dagokio:

- Lehendakartzako Zuzendaritza.
- DonostiaTIK erakunde autonomoa.
- Jarduketa integraleko proiektuak.
- Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza
- Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritza

Honako eginkizun hauek ditu:

- Lehen aipatutako zuzendaritza, organismo eta unitateen koordinazioa.
- Erakunde osoan estaldura duen Alkatetzak zehazten dituen ezaugarri estrategikoko gaiak kudeatzea eta gauzatzea (ROGAren 35. artikulua), gutxienez honako hauek izanik:

(1) Udal-zerbitzuen antolaketa eta prozedura aldatzea, sinplifikatze aldera.

(2) Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzu Integral bakarra lortzea.

(3) E-Administrazioan aurrera egitearekin lotutako garapen teknologikoak.

(4) Parke Teknologikoa zabaltzeko erakunde arteko proiektua Eusko Jaurlaritzarekin.

(5) Arau-Ikuskatzaile-Zehapen sistema berri bat aztertu eta ezartzea.

(6) Next Generation funtsen kudeaketa.

(7) Etengabeko azterketa eta erabakitzea:

- a) Udaleko administrazio-unitateen funtzio-eremua.
- b) interes publikoko erabakia, Unitate Administratiboen arteko iritzi edo proposamen desadostasunen aurrean .

(8) Alde Zaharreko Ekintza Plan Integrala.

(9) Emisio txikiko eremua – Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana.

## DECRETO DE ORGANIZACIÓN

1. Determinar la existencia del Coordinador de Servicios Transversales y su carácter de órgano directivo.

El Coordinador de Servicios Transversales dependerá directamente del Alcalde, quién contará con el apoyo de un comité compuesto por Marisol Garmendia y Yon Goikoetxea.

Le corresponde la coordinación de las siguientes Direcciones, órganos y entidades instrumentales:

- Dirección de Presidencia.
- Organismo Autónomo DonostiaTIK.
- Proyectos de Actuación integral.
- Dirección de Gestión de Personas
- Dirección de Gestión Económica

Sus funciones son:

- La coordinación de las Direcciones, Organismo y Unidades anteriormente citados.
- La gestión y ejecución de los asuntos de calidad estratégica que se definan por parte de Alcaldía con cobertura en toda la organización (artículo 35 del ROGA), siendo, al menos, los siguientes:

(1) El cambio organizativo y procedimental de los servicios municipales en aras a su simplificación,

(2) La consecución de un único Servicio Integral de Atención a la Ciudadanía.

(3) Los desarrollos tecnológicos asociados al avance en la E-Administración.

(4) Proyecto interinstitucional con el Gobierno Vasco sobre ampliación del Parque Tecnológico.

(5) Análisis e implantación de un nuevo sistema Normativo-Inspector-Sancionador.

(6) Gestión de los Fondos Next Generation

(7) Análisis permanente y determinación de:

- a) El ámbito funcional de las Unidades Administrativas municipales.
- b) la opción de interés público ante la discrepancia de criterios entre Unidades Administrativas municipales.

(8) Plan de Acción Integral de Parte Vieja

(9) Zona de Bajas Emisiones – Plan de Movilidad Urbana Sostenible



(10) Udal-kontratazio administratiboa kudeatzeko sistema berri baten analisisa eta horren aplikazioa.

(11) Udalaren zuzendaritza-egitura garatzea eta hobetzea, zuzendaritza-prestakuntza egokiaren bidez, helburuak ezarriz eta emaitzak kontrolatuz eta ebaluatuz. Hori guztia Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/22 Legean xedatutakoaren esparruan.

(12) Udal-antolamenduaren funtzionamendua egituran hobetuko duten beste plan batzuk.

(13) Alkateak zehazten dituen zeharkako proiektu estrategikoak koordinatu, bultzatu eta kudeatzea.

Alkateak definitutako proiektu estrategikoetan, koordinatzaileak eskumena eta zeharkako betearazpena ditu udal-antolakundeko administrazio-unitate bakoitzean proiektuen garapenean inplikaturik dauden bitarteko, prozedura eta giza baliabide guztien gainean (ROGAren 32.2 artikulua). Horretarako, besteak beste, berariaz esleituko zaio beharrezko administrazio-egintzak onartzeko eskuordetza.

Era berean, zuzendaritza-figura horrek bere arloari atxikitako zuzendaritzek, organismoek eta unitateek behar dituzten baliabideak izango ditu burutu beharrezko proiektuak lortzeko, eta, horretarako, dagozkion jarraibideak emango dizkie zuzendariari.

Eskumenak gauzatzeko eta bere eginkizunak betetzeko, koordinatzaileak idazkari tekniko bat (ROGAren 28. artikulua) eduki ahal izango du, lanpostu-zerrendan dagoen lanpostua sortzearekin batera.

**2.** Udal honetako honako zuzendaritza hauek zuzendaritza-organoaren izaera zehaztea. Horien ezaugarriak zuzendaritza-organoen zerrendan sartuko dira, lanpostu bakoitzaren monografiaren arabera, eta tokiko gobernu-batzarrak onartzeko ditu:

- Gizarte Ekintzako zuzendaria
- Udaltzaingoaren zuzendaria
- Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zuzendaria
- Proiektu eta Obren zuzendaria.
- Lehendakari zuzendaria
- Pertsonen Kudeaketako zuzendaria
- Kudeaketa Ekonomikoko zuzendaria
- Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduko zuzendaria
- Hirigintza Iraunkorreko zuzendaria
- Osasun eta Ingurumeneko zuzendaria
- Mugikortasuneko zuzendaria

(10) Análisis y aplicación de un nuevo sistema de gestión de la Contratación Administrativa municipal

(11) El desarrollo y la mejora de la estructura directiva municipal mediante la adecuada formación directiva, el establecimiento de objetivos y el control y evaluación de los resultados. Todo ello en el marco de lo dispuesto en la Ley 11/22 de empleo público vasco.

(12) Otros Planes que mejoren estructuralmente el funcionamiento organizativo municipal.

(13) La coordinación, impulso y gestión de los proyectos estratégicos de carácter transversal que se determinen por el Alcalde.

En los proyectos estratégicos que sean definidos por Alcaldía, el Coordinador tiene competencia y ejecutividad transversal sobre todos los medios, procedimientos, y recursos humanos que estén implicados en el desarrollo de los Proyectos en cada una de las Unidades Administrativas de la organización municipal (Artículo 32.2 del ROGA). A tal fin, entre otras se le asignará de forma específica la delegación de aprobación de los actos administrativos necesarios.

Asimismo, esta figura Directiva contará con los medios necesarios de las Direcciones, Organismo y Unidades adscritas a su Área, para la consecución de los proyectos que deba culminar, a cuyos efectos impartirá las instrucciones oportunas a los Directores.

Para el ejercicio de competencias y desarrollo de sus funciones El/la Coordinador/a podrá contar con un/a Secretario/a Técnico/a (Art. 28 del ROGA), con la correspondiente creación del puesto en la RPT.

**2.** Determinar el carácter de órgano directivo, de las siguientes direcciones de área de este Ayuntamiento, cuyas características serán incorporadas a la relación de órganos directivos según la monografía de cada puesto y aprobadas por la Junta de Gobierno Local:

- Director/a de Acción Social
- Director/a de la Guardia Municipal
- Director/a de Mantenimiento y Servicios Urbanos
- Director de Proyectos y Obras.
- Director/a de Presidencia
- Director/a de Gestión de Personas
- Director/a de Gestión Económica
- Director/a de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamentos
- Director/a de Urbanismo Sostenible
- Director/a de Salud y Medio Ambiente
- Director/a de Movilidad



**3.** Era berean, zuzendaritza-organo izango dira, kasu honetan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek:

- Idazkari juridikoa.
- Fiskalizazio eta Kontabilitateko kontu-hartzailea.
- Diruzaina-finantza zuzendaria.

**4.** Hurrengo administrazio-unitateak ez dira inongo zuzendaritzatan integratzen; beraz, administrazio-antolamendua amaitzen duten lanpostuak ez dira zuzendaritza-organotzat hartuko.

- Euskara Zerbitzua.
- Hezkuntza eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzua.

**5.** Administrazio-unitateetako zuzendariak eta arduradunak, zuzenean zinegotzi delegatuaren menpe eta, hala badagokio, koordinatzailearen koordinaziopean, beren erantzukizun-eremuan, ROGAREN 34. artikulua.

**6.** Administrazio-unitateetako zuzendariak eta arduradunak, Zeharkako Zerbitzuen Koordinatzailearen menpe, zeharkako proiektu estrategikoak garatzeko behar diren jarduerak egingo dituzte, izendapena egin ondoren eta koordinatuta.

Aurreko agintaldian ezarritako udal administrazio betearazlearen egiturak indarrean jarraituko du.

Aldaketa hori antolaketa-dekretu bidez egingo da, Zeharkako Zerbitzuen koordinatzaileak proposamena egin ondoren. Proposamen horretan, arlo, zerbitzu eta unitate bakoitzari eginkizun edo jarduketa berriak edo mugagabeak esleituko zaizkio, bere erantzukizunpean.

**3.** Tienen igualmente la cualidad de órgano directivo, en este caso por determinación del Art. 130 de la Ley de Bases de Régimen Local, los siguientes:

- Secretario/a-Director/a Jurídico/a.
- Interventor/a-Director/a de Fiscalización y Contabilidad.
- Tesorero/a-Director/a Financiero/a.

**4.** Las siguientes unidades administrativas no se integran en ninguna Dirección, de modo que los puestos que culminen la organización administrativa no tendrán la consideración de órgano directivo.

- Servicio de Euskera.
- Servicio de Promoción Social y Educación.

**5.** Los Directores y responsables de unidades administrativas, bajo la dependencia directa del Concejal delegado y, en su caso, bajo la coordinación del Coordinador, desarrollarán en su ámbito de responsabilidad, las funciones señaladas en el art. 34 del ROGA.

**6.** Los Directores y responsables de unidades administrativas, bajo la dependencia del Coordinador de Servicios Transversales, a partir de su nombramiento y con su coordinación, realizarán las actuaciones necesarias para desarrollar los proyectos estratégicos de carácter transversal.

Continuará vigente la estructura de la Administración municipal ejecutiva establecida en el mandato anterior finalizado.

Su modificación se realizará mediante Decreto de Organización, previa propuesta del Coordinador de Servicios Transversales, en el que se asignarán a las diferentes Áreas, Servicios y Unidades, funciones o actuaciones nuevas o indefinidas en su responsabilidad.

Donostia, 2023ko abenduak 15